Gasteizko Andra Mari Zuria

Abuztiak 5. Gasteizko herriak beste jai hasiera bat ezagutu berri du. Bezperan, Zeledon pertsonaia mitikoak jaitsiera egin du astebeteko ospakizunei hasiera ematen dielarik. Andra Mari Zuriaren jaiak ospatzeko gertu da Gasteiz, biztanleen gorputz nahiz gogoan alaiki igaroizeko botoak egiten direlarik.

Andra Mari Zuria Gasteizko patroia haundia dugu eta bere inguruan antolatu dituzte gasteiztarrek heuren jai nagusiak. Noiztik dute Arabako hiri nagusiaren biztanleek Andar Mari Zuria patroitzat? Egia esateko, ez de hainbeste urte eliz patronatua Iortu zela: 1921.eko Apirilaren 10.ean bialtzen zen Erromatik titulu hori erabili ahal izateko baimena. Baina, dena esan behar da, erabaki hau prozesu luze baten ondorioa besterik ez zen.

*Bizente González de Etxabarrik, bere **"Vitoria y sus cercanías"** liburuan honela idazten zuen 1901.ean: **"No es Nuestra Señora de la Virgen Blanca Patrona de Vitoria, pero como a tal se le considera".***

Eta noiztik datorke debozio hau? Erantzuna ez da ziurra, baina Andra Mari Zuriarekiko debozio hau Gasteiz fundatu zenetik datorrela esan daiteke. Iruñeko Katedralean ba da birjin honen irudi bat eta, jakintsuek diotenez, Gasteizko fundatzaileak berak eskainia ei da. Errege harek bere alaba bati birjinaren izena ipini zion eta bere emazteak Uxue baselizara birjinaren beste irudi bat eskaini zuen. Beraz, ez litzateke bat ere harrigarri izango debozioa hiriarekin batera hastea.

Diaz de Arkaiak dioenez, Andra Mari Zuriaren Gasteizko lehen kofradia XVgn. gizaldian sortua liteke. 1612.an Udalak baimena eman zuen kofradia bat osatzeko, baina honen sortagirian aurreko beste kofradia baten gaineko aipamena egiten da. Ezagutzen den lehena hiriko ezkogileek osatzen zuten. Geroztik kofradia gehiago sortzen da, 1927. arte, urte hartako Apirilaren 4.an kofradia guztiak bateratu egiten baitira.

*Gasteizko jaiak ez dira beti Abuztuan izan. Garai batetan Uztailean ospatzen ziren, Santa Anan. Baita Iraileko lehen egunetan hiriak jaitsura hartzen zuen. 1883.ko Irailaren 12.an Gasteizko Udalak Iraileko peri eta jai hoiek Andra Mari Zuriaren egunera pasatzera erabaki zuen. Ondori bezala, 1884.an **"programa de festejos en honor de la Virgen Blanca, Patrona de esta capital"** irakur daiteke, nahiz eta gorago adierazi dudan bezala, patroi ofiziala izateko 1921.arte itxoegin behar. Baina gasteiztarrek bihotzean zeramaten Andra Mari Zuria.*

*Behin eliz-baimena lortuz gero, Andra Mari koroatu behar zuen Gasteizko herriak, zaindariarena ez ezik baita Erreginaren atributuak ere eskaini nahi baitizizkion. Eskabidea 1953.an egin zen, Udalak eta Andra Mari Zuriaren kofradiak eraginda. Pio XII.ari zuzendutakoan honela irakur zitekeen: **"...humildemente postrados a los pies de Vuestra Santidad, solicitamos la gracia de la coronación canónica de la imagen de Nuestra Señora de las Nieves o de la de La Blanca, Patrona canónica de la Ciudad, para que ella reine sobre nuestro pueblo, con todos los honores que la Santa Sede concede a las advocaciones e imágenes más veneradas".***

*Urte bereko Abenduaren 30.ean Erromatik idazki bat bialtzen zitzaion Gasteizko gotzai zen Bueno Monreali: **"Decretamos unanimemente que esta imagen de la Realísima Virgen La Blanca pueda ser coronada en nombre nuestro con una corona de oro"** erabakia jakinerazten zuelarik.*

Koroatu aurretik zalantza bat sortu zen: zein irudi aukeratu? San Migel elizako aurrekaldean dagerrena?; Faroletako prozesiora ateratzen dena? ala, Kaperan aurkitzen dena? Azkenik, kaperakoa izan zen hautatua, eliza barruan kulto hartzen duen bakarra bera baita. 1954.ko Urriaren 17.an koroatu zen Andra Mari Zuria, Gasteizko herriak eskatuta zeukan bezala.

Gasteizen ezagututako Andra Mariren lehen irudia 1612.an baino lehenago San Miguel elizako atzekaldean beneratu zena da, gaurregun eliza berberean aurkitzen dena. Eta, beharbada, kanpoan dagoelako gasteiztarrentzat ezagunena izango da irudi hau. Ba dira beste batzu ere herriak ondo estimatuak ditunak. Bat San Migel eliza barruan, 1854.an Andra Mari Zuriaren kaperan ezarria. Beste bat Errosarioko Prozesioan ateratzen dena da. Ospakizun honen lehen berria 1855.ean ematen da, Abuztuaren 4.ko gauean San Migeleko apezteria, zenbait kofradia eta fededun asko, Birjinaren irudi bat eramaten, herriko zenbait kaletatik zehar ibili zelarik. Baina 1897.an irudi berri bat agertzen da, farolak ere lehen aldiz urte horretan ematen direlarik. Irudi hau Francisco Font irudigile katalanak egin zuen. Aipamenik merezi dutenak Egunsentiko Errosarioan ateratzen dena eta Probintziako Museoan erakusten dena dira.

José Mari VELEZ DE MENDIZABAL

Vitoria se dispone a celebrar sus fiestas anuales, hecho que gira alrededor de la festividad de la Virgen Blanca, patrona de la ciudad. No ha pasado aún un siglo desde que el Ayuntamiento vitoriano decidió celebrar las fiestas de la ciudad en estas fechas, ya que anteriormente Vitoria también había venido festejando Santa Ana en Julio y los primeros días de Septiembre. Es en 1884 cuando se comienza a festejar en la época que se viene haciendo en la actualidad.

¿De cuándo proviene la veneración a esta Virgen en Vitoria? Según los estudiosos del tema, es probable que fuera el mismo Sancho el Sabio, fundador de la villa, el que introdujera esta devoción. De hecho, parece probado que dicho monarca navarro ofrendó una imagen de la Virgen Blanca a la Catedral de Pamplona, y asímismo, puso de nombre de pila Blanca a una de sus hijas.

De todos modos, han de transcurrir los siglos para que la ciudad de Vitoria pueda proclamarla como su patrona. Esto no sucederá hasta 1921, si bien es cierto que para entonces la capital alavesa ya la consideraba como su patrona, de manera unánime y popular.

La primera [illegible] tiene de una [illegible] Virgen Blanca [illegible] 1612, aunque en [illegible] dacional se hace [illegible] sión a otra posible [illegible] primera cofradía que se [illegible] formada por los [illegible] Con los años han [illegible] otras, para, definitiva[illegible] dirse todas en una [illegible]

Una vez conseguido [illegible] religioso, por el [illegible] a la proclamación [illegible] trona de la ciudad [illegible] dispensar a la Virgen [illegible] atributos de Reina [illegible] solicitó de Roma [illegible] diente permiso [illegible] el 30 de Diciembre [illegible] licitud la habían [illegible] tamiento vitoriano [illegible] la Virgen Blanca [illegible] contestación [illegible] una pequeña duda [illegible] las imágenes que [illegible] ciudad debía ser [illegible] se conserva en el [illegible] Iglesia de Sta Mª [illegible] saca en la procesión [illegible] los Faroles; o la que [illegible] la capilla interior [illegible] San Miguel. La duda [illegible] sobre esta última [illegible] única que recaía [illegible] rior del templo. La [illegible] la Virgen Blanca [illegible] de Octubre de 1954 [illegible] la devoción demostrada [illegible] como lo atestiguan [illegible] participación popular [illegible] todos los actos [illegible] este motivo.

So egilea pentsalariaren emariaz

Herria *asterokoak, bere azken zenbakian, Etienne Salaberry So egilearen azken agurra zekarren. Bere pentsalari emaria guziontzat ezaguna zen. Gure mende hontan euskaldunon artean eman den filosoforik handienetakoa eta gizamenderik gizamende oso gutie maten diren horietakoa. Mingarri zitzaion Emile Larreri* ***Herria****-ren zuzendari bezala "Esker mila" eskainiz azken agurra adieraztea:*

"Kasik 35 urte hontan lehen aldia du naski bi artikulu eskas dituela ***Herria*** *astekari honek. Ez "Pointes Séches" erdaraz, ez "So Egilea" ez dauzka aste hontakoak"* ***(Herria,*** *1610 zenb., 1981-eko uztailaren 23-koa).*

*"Gisa guziz heien haisa zen beti euskaldungoarena eta Europako nazioneen uztartzearena". Artikulu sentikorra horrenbeste urteren buruan bertako idazle zenaren alde eskainia. Izan ere, "****Herria,*** *Etienne Salaverry gabe, ez da arras lehengo* ***Herria*** *izaiten ahalko".*

78 urteak betetzerakoan, burua oraindik nahikoa argia zuen, baina ber eskuetako ikarak ekarri zizkion idazteko eragozpena, idazle pentsalaria etsipentzera arte, eta munduan ez zuela deus egitekorik sartu zitzaion buruan. Eta, uste gabean, gaitz horrek eraman du jakintsu eta langile trebea. Uztailaren 26an, igande goizez, hil zen Baionako eritegian.

Baxe-Nabarreko Heletan sortua zen 1903. urtean. Etxekoek albaiteru estudioak ematea nahi zuten, mutilak berezko argitasuna zekarrenez, baina berak apaizgoa hautatu zuen. Eta apez egin ondorean Filosofia ikasketak burutuko zituen Tolosan (Toulouse). Ondorean irakasle izateko lehenik Uztaritzeko Mintegian eta gero Baionako Villa-Pian. Bitartean gerrak hartu zuen eta presoner egina Stalag IV-eko korralean eman zituen bost urte.

Gerra bukatzen etengabeko idazteari eman zion, bai euskaraz eta bai frantzezez. ***Herria****-tik aparte beste aldizkari askotan idatzi du eta zenbait libururen egilea da. Lan horiek xehetasunez ezagutu nahi dituenak, nere* ***Escritores euskéricos*** *(1968) liburuan baino osatuago aurkituko ditu* ***Eskualzaleen Biltzarrak eskaini OMENALDIA*** *(1980) liburuaren sarreran. Baita ere, ikus Tolosan berakin batean ikasketak egin zituen J. Thalamas Labandibar galdu berriak nola ikusten duen E. Salaberryren gizontasuna eta pentsamena* ***Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País****en argitaratu zuen lanean (XXXV, 1.979, "El filósofo Etienne Salaberry", 456-474 orrialdeetan).*

Filosofiaz zuen prestaera ongi erakustsi zigun 1965ean Jakin taldearen ardurapean Arantzazun argitaratu zen ***Filosofiaren kondaira*** *zeritzan liburu hartan. Henri Bergson kapitulua, 99tik 143ra doana, berak hain jakitate handiz burutua, baita.*

Baionako Katedralean ohorezko kalonjea zen, Lauréat de l'Academie Francaise Euskaltzaindiako urgazlea 1957. urtetik eta euskaltzain ohorezko 1979tik.

Denboraren buruan, bere gogoetetan barneratuz, bere pentsamendua sakonduz, aberrimina geroago eta biziago agertzen zuen. Bere azken mezuetariko bat zen, arestian, aipatu dudan ***Omenaldia*** *liburuaren amateran ziona: "Gazteak, edo elkarrekin sortuko duzue Euskal-herria berria gizontasunean; edo elgar ezin ikus ekonomia deseginik, kultura ez eginik, Euskal-herria ehortziko".*

Ene sinestea Iragan biziari gibeletik beha *deritzan liburua, 1978an Zabal liburutegiak argitaratua, Etienne Salaberryren autobiografia da. Baina egile batek nekez eman lezake berekiko gogoetaz pentsamenean duen guzia. Honegatik, besteak galde eta berak ihardetsiz, euskalduntasunez eman solasak* ***Omenaldia*** *liburuaren azken partean 65. orrialdetik 99ra jasotzen direnak izan daitezke osagarri.*

"Zazpiak bat", plaza guztietan idatzia behar litaken leloa ¡Oihu egin zigun. Europaren batasunez arduratzen baizen, baina herrien Europak kezkatzen zuen gizona. Herririk tipienak ere zapalkuntza gabe bizi ahal izateko Europa. Honegatik, euskaldunon batasunaren alde dei eginen zuen, zeren ezaguten bai zuen etsaigoaren indarra: "Euskal-herrian kokatu Troia-ko zaldia: euskara gabeko Ikas-etxe, Aldizkari, Irrati, Telebista gudariak kukuturik dauzkan zaldia. Lau gudariak beldurgarri. Bi azkenak gehiago".

Herria maite zuen heinean maitatzan zuten herritarrek, eta hala ikusi dugu iragan astearteez Heletan bere gorpuaren biletetan. Apezpikua eta ehun eta berrogei apaiz izan ziren partaide, elizan jendetza ezin kabituz, eman zen mezan. Besteak beste eta eliz gizonez aparte mintzo ziren hilerrian M.A. Arbelbide andere auzapeza, M. Itzaina jauna, hunkipen sentikorrenez kantatu zuten, azken agurrez, Alkat, Laka eta Mendiburu bertsolariek. Halakoa bai zen E. Salaberryren merezimendua, bere ardurako gaiak zirenez Euskal-Herria, Europa, zuzentasuna, barkamendua, bakea, fedea, egia eta ogia. Hori da bere lanetan aurkitzen dena eta badugu besteok beragan zer ikasirik.

Euskara joria zuen, Heletako erroetan ernea - eta Euskal-Herri orotan batasunerantz mamitua. Olerkiz, artikuluz, antzerkiz, saieraz... liburuetan eta aldizkarietan zituen bere pentsaera eta kezkaz euskal literaturaren gorengo mailetan jartzekoak dira. Inprimategian laster argitaratzekotan omen da beste liburu bat ere, ***Beñat adiskidea, agur*** *deritzana. Orain artekoak bezala, zalantzarik, gomendagarria izanen da.*

Hizkuntzaren miatasunak abertzaletasunera eraman zuen gizona, bere unibertsaltasunean Europaren batasuna eskatzen ari zena, umiltasunez aitortzera heldu bere nortasuna non kokatzen zen, bere autobiografiaren amaieran zionez: "Hori duk; giza gaizoa, Jaungoikoak eman daukana, Etien Josepe, hogoigarren mendeko xori, Heletako ume, Garrako apeza".

Juan SAN MARTIN

El pasado día 26 de julio, inesperadamente, falleció en Bayona el escritor Etienne Salaberry. Sacerdote, licenciado en Filosofía por la Universidad de Toulouse, ha sido profesor de Filosofía la mayor parte de su vida, primero en Ustaritz y luego en Bayona. Era, además, miembro laureado de la Academia francesa, Canónigo honorario de la Catedral de Bayona y miembro de honor de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

Colaboró en francés y vascuence en numerosas publicaciones culturales. Su principal contribución es la llevada a cabo en la sección "Pointes sèches" en francés y la columna en euskara, firmada por **So egilea** en el semanario **Herria** de Bayona en el transcurso de cerca de 35 años consecutivos. La obra titulada **Ene sinestea** (1978), recoge su autobiografía. En francés, entre otras obras, son muy conocidas los ensayos **L'homme basque, Essai de Caractériologie cuskarienne** (1950) y **La Messe sur le Pays Basque.** Compartía las ideas europeístas de Jean Monet. La Europa de los pueblos era una de sus vocaciones, fuertemente arraigadas, y no comprendía, con justa razón, una Europa sin salvaguardar los grupos étnicos, las minorías lingüísticas.

Juan Thalamas Labandibar, que falleció en febrero del presente año, fue condiscípulo de E. Salaberry en Toulouse y en los Cuadernos 3º y 4º (tomo XXXV) del año 1979 del **Boletín de la R.S.B. de los Amigos del País** [illegible] blanza del [illegible] donde decía [illegible] "escritos sobre [illegible] y de mañana [illegible] téntico de actualidad.

Hombre de [illegible] conformó con la [illegible] ción de los [illegible] contemporáneos, [illegible] con los mismos [illegible] aportación de su [illegible] sociedad vasca y [illegible] Europa, como [illegible] del grupo [illegible] la unión europea [illegible] dicha cuota. [illegible] muchos de sus [illegible]

El 16 de octubre [illegible] el homenaje de [illegible] zaleen Bizkaiko [illegible] natal de Heleta. [illegible] con la intervención [illegible] M.A. Arbelbide, [illegible] Dirassar, E. Lafo[illegible] nutrido grupo [illegible] exposiciones sobre [illegible] de Salaberry. [illegible] ficaciones que [illegible] el volumen **Omenaldia** [illegible] una presentación [illegible] Michel Labeyrie, [illegible] gratitud del [illegible] más un exacto [illegible] sobre su pensamiento [illegible] personalidad vasca [illegible] curopeo, confirmó [illegible] formulada por Martin [illegible] que constituye un [illegible] apéndice a la autobiografía [illegible] **nestea.**

Según [illegible] nos, [illegible] lada **Beñat adiskidea, agur** [illegible]

Por su [illegible] pensamiento, Europa [illegible] de ocupar un lugar [illegible] literatura vasca. [illegible] un hombre dotado [illegible] temas que [illegible] vasco. Hombre [illegible] rado, que en pocas [illegible]